

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Hasierako onespena ematea Aiarako Udaleko informazio batzordeen funtzionamendua arautzen duen erregelamendu organikoari

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 20an balio osoz egindako ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Aiarako Udaleko informazio batzordeen funtzionamendua arautzen duen erregelamendu organikoari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 70.2. artikuluetan eta toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoa betetzeko, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertze eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe horretan, interesa duen edozeinek aukera izango du espedientea udal bulegoetan aztertze eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada epe horretan, behin betiko onetsizat emango da erabaki hau, udalbatzaren beste erabakiren baten beharrik gabe.

Erregelamenduaren aldaketa indarrean sartuko da testua ALHAOn oso-osorik argitaratzen denean.

Arespalditza, 2020ko ekainaren 1a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA